# EIBARKO LANDA

# EREMUKO EMAKUMEEN

# DIAGNOSTIKOA

# -2018-

# AURKIBIDEA


1. SARRERA 3
2. TESTUINGURUA 5
3. HELBURUAK 8
4. MARKO JURIDIKOA 9
5. METODOLOGIA 11
6. GALDETEGI ETA ELKARRIZKETETAN JASOTAKO DATUEN INTERPRETAZIOA 16
7. BILERA ETA TALDE DINAMIKETAN JASOTAKO INFORMAZIOAREN INTERPRETAZIOA 25
8. ONDORIOAK 29
9. DIAGNOSTIKO PROZESUAREN EMAITZAK 32
10. PROPOSAMENAK 33
11. BIBLIOGRAFIA 35

- 1. Eranskina 36
- 2. Eranskina 38
- 3. Eranskina 51

# 1. SARRERA

Gaur egun, landako identitatea urruntzen ari da irudíteria kolektiboak jasotzen duen ideiatik: landa-eremuko biztanle gehienak ez dira lehen sektorean aritzen, ez daude horren isolatuta, gehienek hirigunearekin harreman aktiboa dute, eta oinarrizko azpiegiturak gero eta eskurago dituzte.

Hala ere, oraindik emakumea eta baserritarra (edo landa eremukoa) izateak ***opresio bikoitza*** jasatea dakar, emakume izateagatik alde batetik eta landa eremuan bizitzeagatik beste batetik.

Belaunaldiz belaunaldi, Emakume Baserritarrek gizarteari, herriari eta bizitzako arlo guztiei egin dizkioten ekarpenak baztertuta eta ezkutatuta egon dira. Horregatik, emakumeek landa eremuan bizitzeagatik jasan dezaketen ahultasun arriskua dela eta, beraien ***bizi kalitatea bermatzea*** lehentasuneko akzioa izan beharko luke. Horretarako, nahiz eta landa eremuan bizitzeak gero eta diskriminazio txikiagoa dakarren berarekin, bertako emakumeen eta gizonen arteko ***desorekak desagerraraztea*** ezinbestekoa da.

Landa eremuaren etorkizuna lan aukera eta hobekuntzaren eskutik joan behar da, baina heziketa, kultura, aisialdi, teknologia berrietarako sarbidea, zerbitzu eta azpiegituren inguruan behar dituzten ***aukerak sustatu*** behar dira. Gainera, erabaki eta parte-hartze guneetan ***emakumeen presentzia*** indartu beharra dago, bai maila ekonomikoan, politikoan zein gizarte mailan.

Emakumeen eta gizonen arteko ***berdintasuna lortzea*** oinarrizko eskubideak bermatzearen, erantzukizun etiko baten eta justizia kontua da. Izan ere, berdintasuna lortzea ***garapen ekonomikoarentzat*** oinarri garrantzitsua da, baina baita lurralde eta udalerriaren funtsezko ***gizarte kohesio*** eta egituraren ardatza. Horregatik, ***gai transbertsala*** izanik, arlo guztien ikuspegi eta erantzukizuna bermatu beharra dago. Landa eremuan bizi diren emakumeak gure gizarte eta herriaren ***garapen jasangarrirako*** ezinbestekoak dira. Eta garapena jasangarria bermatu ahal izateko, Landa Eremuko Emakumeek gaur egun oraindik, hiriguneko emakumeen aldean, neurri handiagoan jasaten duten ***diskriminazioari aurre egin*** behar zaio.

Horretaz gain, garrantzitsua da gure gizartean eta konkretuki hirigunean, Landa Eremuko Emakumeen ***ekarpenak balioan*** jartzea. Egin dituzten beste ekarpen askoren artean kontutan izan beharra dago beraiek izan direla bizitzaren eta herriaren sostengurako oinarrizko ezagutzaren jabeak. Beraiek dira belaunaldiz-belaunaldi elikadura, elikagaien ekoizpenean, hazien erreprodukzioan, zaintzen

inguruko ezagutzan, osasunean, ekonomian zein kulturaren transmizioaren funtsezko elementuak.

Ondorioa, Landa Eremuko Emakumeen berezitasunak arreta espezifikoa eskatzen du. Hori dela eta, honako dokumentu honek, Eibarko landa eremuko emakumeek, lehen pertsonan adierazi nahi dituzten behar eta aldarrikapen desberdinak jaso nahi ditu.

# 2. TESTUINGURUA

Eibarrek bost landa-auzo ditu: Otaola, Aginaga, Arrate, Mandiola eta Gorosta. Diagnostiko honekin, bertan bizi diren emakumeen errealitatea ikustarazi nahi da, dituzten beharrak ezagutu eta euren proposamen konkretuak jaso. Txosten honek Eibarko landa eremuan emakumeen eta gizonen arteko eta landa eremuko eta hiriguneko herritarren artean dauden desorekak gainditzeko tresna izan nahi du.



Iturria: Daiteke

**Biztanleriaren Dentsitatea**

| Lekua | | Eibar | Landa E. | Gorosta | Arrate | Mandiola | Otaola | Aginaga |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | Kopurua | 14.197 | 177 | 25 | 43 | 53 | 30 | 26 |
| | % | **51.5** | **46.5** | **41.5** | **45.5** | **50** | **48.5** | **46.5** |
| Gizonak | Kopurua | 13.376 | 202 | 35 | 52 | 53 | 32 | 30 |
| | % | **48.5** | **53.5** | **57.5** | **54.5** | **50** | **51.5** | **53.5** |

Grafikoa: Daiteke  Iturria: Eibarko Udal Errolda

Eibarko udalerrian, biztanleriaren %1,4 landa eremuan bizi da gaur egun. Horietatik %46.5 emakumeak dira. Emakumeen eta gizonen presentzia orokorrean nahiko orekatua bada ere. Kontuan hartuz gero Eibarko biztanleriaren %51.5 direla emakumeak, landa eremua eta hirigunearen artean desberdintasuna nabari da.

**Biztanleriaren adin piramidea**







Grafikoa: Daiteke  Iturria: Eibarko Udal Errolda

Eibarko udalerriko eta landa eremuko biztanleriaren adinari erreparatuz gero, datuek islatzen duten egoera nahiko parekatua da bi eremuen artean.

35-70 urte bitartekoa da populazioaren zatirik handiena, eta azken hamarkadetan jaiotza tasak nabarmen egin du behera orokorrean. ***85 urtetik gorako biztanleriaren ehuneko handiena emakumeak*** dira.

Nabarmentzekoa da auzoetako jaiotza tasak azken bost urteotan izandako bilakaera: Eibarko udalerriko ***jaiotza tasak baino erritmo biziagoan egin du behera*** auzoetakoak. Joera bezala identifikatu ezin bada ere, kontuan hartzeko datua dela esan daiteke.

Aurrerago ikusiko denez, Eibarko Landa Eremuko Emakumeen errealitatea oso anitza da eta horregatik, garrantzitsua deritzogu landa auzoetan bizi diren emakumeen ahotsak jasotzea. Beti ere, euren aniztasuna kontutan hartuta, gaur egun dauzkaten beharrak eta aldarrikapenak arretaz jaso nahi izan ditugu, eurak baitira gure herriko ekonomia, kultura, paisaia eta jakituriaren igorle eta ardatz garrantzitsuak.

Hau da, diagnostiko honen xedea honako hau izan da: Landa Eremuko Emakumeen egoeraren ikuspegi orokor bat edukitzea, landa eremuan bizitzeagatik eta emakume izateagatik jasaten duten diskriminazio egoera kontutan izanda.

# 3. HELBURUAK

Eibarko Landa Eremuko Emakumeen boteretze prozesuaren abiapuntua ezartzea helburu duen esku hartze prozesu bat proposatzen da, horretarako bi lan ildo definitu dira: Ahalduntze indibiduala sustatzea alde batetik, eta ahalduntze kolektiborako oinarriak finkatzea bestetik.

Emakumeak eurak ahalduntze prozesuen eragile eta motore gisa finkatuz, haien beharretara egokitutako prozesu indibidual eta kolektiboak garatzea litzateke helburua, eta horretara bideratuta burutu da txosten honen bitartez aurkezten den diagnostikoa.

Egindako lanketaren bidez, emakumeen beharrak identifikatzeaz gain, sororitate harremanak sortu eta sustatzea hartu da helburu gisa, bi norabidetan: alde batetik, emakume baserritarren sare bat sortuz, Eibarko bost landa auzo bakoitzetik abiatuz Debabarreneko beste Emakume Baserritarrengana heldu arte; bestetik, bestelako emakume profil eta talde eibartarren arteko zubiak eraikiz.

| HELBURU OROKORRAK |
|---|
| • Eibarko Landa Eremuko Emakumeen boteretze prozesuaren abiapuntua ezartzea. |
| • Landa eremuan eta hirigunean bizi diren emakumeen arteko aukeren berdintasuna sustatzea. |

| BERARIAZKO HELBURUAK |
|---|
| • Eibarko Landa Eremuko emakumeen egoeraren gaineko diagnosia burutzea |
| • 2016an proiektuaren sorreran definitutako helburu orokor berarekin proiektuaren jarraipena bermatu. |
| • Eibarko Landa Eremuko Emakumeak eta Debabarrenekoak parte hartuko duten sareak eratu eta herriko errealitate eta talde desberdinen arteko sinergiak sortu. |
| • Eibarko Landa Eremuko Emakumeek erabilgarri dituzten baliabideen inguruan informatu. |
| • Eibarko Landa Eremuko Emakumeek berain eskubide, garapen eta ongizatearekiko duten behar eta eskaerak jaso. |
| • Aurrerantzean Eibarko Landa Eremuko Emakumeei zuzendutako ekintzak antolatu beraien behar eta eskaerak kontutan izanda. |
| • Debabarreneko Landa Eremuko Emakumeen lehen topaketa bat antolatu. |
| • Andretxea espazioa ezagutu, bertan antolatzen diren ekintzen agenda jasoko dutela ziurtatu, parte hartzeko nahia piztu eta eragile izatera animatu. |

# 4. MARKO JURIDIKOA

Eibarko Landa Eremuko Emakumeen Berdintasun diagnostiko honek **Eibarko IV. Berdintasun Planean** jasota dagoen marko juridikoa partekatzen du. Bestalde, azken urteetan hainbat lege eta arau juridiko argitaratu dira, bai nazioarte mailan, Estatu mailan eta baita Autonomi Erkidego mailan ere. Lege hauen guztien helburua, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuneko eskubidearen aitorpena, eta horren aldeko urratsen nondik norakoa zehaztea da. Hala, esan genezake lege esparru zabal baten estalpean kokatzen dela Eibarko IV. Berdintasun Plana eta neurri berean, dokumentu honetan aurkezten dugun Eibarko Landa Eremuko Emakumeen Berdintasun diagnostikoa.

Ildo horretatik, garrantzitsua da indarrean dauden berdintasunari buruzko legeek ezarritako mandatuak bete daitezela sustatzea, mandatuok orokorrak zein espezifikoak izan. Orokorrak emakumeen ahalduntzeari, balioen aldaketari eta arlo horretan garatzen diren programetan eta jardueretan genero-ikuspuntua sartzeari buruzkoak dira. Espezifikoek, berriz, helburu hauek dituzte funtsean: emakumeak ustiategiko titularrak edo titularkideak izan daitezela sustatzea; emakumeek landa-eremuan egiten duten lana errazteko lan-jarduerak bultzatzea; mendekotasunen bat duten pertsonei laguntzeko gizarte-zerbitzuen sare bat garatzea, landa-eremuan lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiteko baliabide gisa.

Nahiz eta marko juridiko osoa txostenaren *1. Eranskinean* aurkitu daiteken, landa eremukoak eta emakumeak diren heinean aipamen berezia merezi dute honako neurri hauek:

| EAEko Emakumeen eta Gizonen Arteko VI. Berdintasun Plana |
|---|
| Ahalduntze Kolektiboa Laguntzeari dagokion programan, honako helburua zehazten du planak: Egoera txarrenetan dauden emakumeen gizarte-estaldura eta lan baldintzak hobetzea; batik bat, lehen sektorean dihardutenena, etxekoandreena eta ezkutuko ekonomian dihardutenena, lan-baldintzak okertzearekin batera sortzen ari diren beste arrisku-talde batzuen artean. |

| 8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazariaren Estatutua |
| --- |
| 2015ean Eusko Legebiltzarrak Emakumeen Nekazarien Estatutua onartu zuen aho batez onartua. Helburua da landa eremuko emakumeen zereginaren balioa agerian jarri eta ikusgarri bihurtzea, eta bereziki nekazaritzako elikagaien industriari eta, ondorioz, landa garapenari egiten dioten ekarpena. |

| 3/2014 LEGEA, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Plana |
| --- |
| Lehen azterlana, **“Emakumeak euskal landa ingurunean”**, Estatistikaren Euskal Planaren barruko lau hilekoko txostena da, eta bere helburua da landa inguruneko emakumeen bizimoduari buruzko informazio etengabea lortzea, bestela antzematen zailak izango lirateken premiak eta gabeziak detektatzeko: besteak beste, antzeman da landa inguruneko emakumeek landa inguruneko gizonezkoek baino ordubete gehiago egiten dutela lan egunero eta, gainera, urtetik urtera gehiago direla elkarteetan, zein politikan edo prestakuntza ikastaroetan parte hartzen duten emakumeak, eta lehen sektorea landa ingurunearen oraingo zein etorkizuneko aldaketa eragiletzat jotzen dutela, betiere sektorean gazteak sartzea babesten baita.<br>Bigarren azterlanak, **“Emakumeak euskal nekazaritza sektorean: emakume nekazariak”** izenekoak, egoeraren hasierako argazki bat planteatzen du, Estatutuan jasotzen diren neurriek etorkizunean edukiko dituzten ondorio positiboak neurtu ahal izateko. Azpimarratzekoa da ustiategien %37 baino ez daudela emakumeen esku, nahiz eta emakumeak laguntza handia izan nekazaritzako ustiategirako, gehiengoa baitira famili laguntzan. |

Esan bezala, Landa Garapenean eta Berdintasunean Erkidego, Estatu, Europa zein Nazioarteko lege garrantzitsuenak jasota daude *1.Eranskinean*.

# 5. METODOLOGIA

**Aurreko fasea: Proiektuaren sorrera**




Iturria: Daiteke

Eibarko Udalaren Berdintasun Zerbitzuak eta Debemenek Landa Eremuko Emakumeen ahotsa jaso eta euren ahalduntzea lortzeko proiektuaren helburuak definitu ondoren Daitekek proiektu proposamen bat egin du.

Definitutako helburuak lortze aldera proiektuan parte hartuko duten pertsona talde eragilea definitu da. Talde eragilean Berdintasun teknikaria, Debemeneko teknikaria, Andretxeako dinamizatzaileak eta Daitekeko koordinatzaileak parte hartu dute.

Emakumeen ahotsak jasotzeko helburuarekin galdetegi bat egin da, lehenik tresna honekin aztertu nahi diren aldagaiak definituz.

Azkenik, proiektua burutzeko behar diren lanak eta denborak antolatze aldera kronograma definitu da.

**1.go Fasea: Antolaketa**




Iturria: Daiteke

Eibarko Landa Eremuan bizi diren emakume guztiak gonbidatuta egon diren proiektuaren aurkezpen saioa, Arrate auzoko Andirau elkartean egin da.

Auzo bakoitzeko emakume erreferente baten edo biren konpromisoa lotuta, beraiek auzoko emakumeak ezagutzen dutelarik, talde eragilearen eta auzotarren arteko zubi lana egin eta prozesuan inplikatzea nahi izan da. Talde hauekin koordinatuz proiektuaren atal batzuen antolaketa adostu da.

| Auzoko emakume erreferenteak/koordinatzaileak |
|---|
| • Gorosta auzoa: Emakume erreferente/koordinatzaile 1 |
| • Mandiola auzoa: 2 emakume erreferente/koordinatzaile |
| • Otaola auzoa: 2 emakume erreferente/koordinatzaile |
| • Arrate auzoa: 2 emakume erreferente/koordinatzaile |
| • Aginaga auzoa: 2 emakume erreferente/koordinatzaile |

Prozesuak iraun duen bitartean emakume erreferenteekin bilerak egin dira. Aldi berean, e-postaz, telefonoz zein whatsupp bitartez eman da harremana.

Auzoko emakumeekin bilera egunak adosteko eta beraien arteko harreman sareak sendotzeko helburuarekin whatsupp taldeak sortu dira:

- Eibarko Landa Eremuko emakume guztiak (whatsuppeko erabiltzaileak direnak) batzen dituen taldea.
- Eibarko Auzo bakoitzeko emakume guztiak batzen dituen taldea.

## 2. Fasea: Datu bilketa




Iturria: Daiteke

- <u>Galdetegia </u>( *2. Eranskina*) eta aurrez aurreko elkarrizketak ahalik eta Landa Eremuko Emakume gehienen ahotsa jasotzeko tresna gisa erabili da. Emakumeek galdetegia bete ahal izateko 3 metodo erabili ditugu:
    - 21 emakumek galdetegia eta aurrez aurreko elkarrizketan parte hartu dute.
    - 37 emakumek galdetegia auzoko emakume erreferenteen bitartez bete dute.
    - 7 emakumek galdetegia e-postaz bete dute.

- <u>Bilerak eta Talde dinamikak</u> (*3. Eranskina*) galdetegian jaso ez den informazioa jasotzeko erabili dira, baita, motibazioa piztu, elkar ezagutu, sarea sendotu eta proposamen konkretuak identifikatzeko. Daitekeko koordinatzaileak dinamizatutako galdera batzuk erantzutea proposatu da, auzo bakoitzean ezberdinak izan dira.

*1. Ariketa:* Emakume eta gizonen arteko desberdintasunen inguruko hausnarketa.

*2. Ariketa:* Landa Eremuko eta kaleko bizi baldintzen desberdintasunen inguruko hausnarketa.

*3. Ariketa*: Landa Eremuko Emakumeen behar eta proposamenak.

- **Aginaga auzoa:** Agiñako elkartean elkartu ginen eta 12 emakumek parte hartu zuten.
- **Mandiola auzoa**: Arrateko Andirau elkartean elkartu ginen eta 10 emakumek parte hartu zuten.
- **Gorosta eta Otaola auzoak**: Andretxean elkartu ginen eta 5 emakumek parte hartu zuten.
- **Azokako emakumeak**: Eibarko azokan Eibarko emakume nekazariekin elkartu eta beraien beharrak eta aldarrikapenak jaso dira.
- **Arrate auzoa**: Bertako emakume erreferente baten bere auzoko emakumeei dagokien beharren inguruko hausnarketa sakona jaso da telefonoz zein e-postaz.

### 3. Fasea: Jasotako datuen interpretazioa eta txostena egitea




Iturria: Daiteke

Udal erroldatik ateratako datu demografikoak honakoak dira: landa eremuan erroldatuta dauden emakume eta gizon kopurua, landa eremuan bizi diren emakumeen ikasketa maila eta landa eremuan bizi diren gizon eta emakume kopurua adin tarteak kontutan izanda.

Aurrez aurreko elkarrizketetatik, galdetegitik, emakume erreferenteekin, azokan izandako bileratik eta talde dinamiketatik honako datuak atera dira: emakumeen lana, gida baimena eta kotxearen jabetza, baserrien izena eta titulartasuna, adin txikiko eta nagusien zaintza lanak, elkarteetan parte-hartzea, zerbitzuei dagokien asebetetze maila, emakume eta gizonen arteko desberdintasunen inguruko pertzepzioa, landa eremu eta hirigunearen arteko desberdintasunen pertzepzioa, isolamendu, bakardade eta beldurraren pertzepzioa, baserritarra izateagatik diskriminazio sentimendua, landa eremuko bizitzarekiko asebetetzea eta proposamenak.

# 6. GALDETEGI ETA ELKARRIZKETETAN JASOTAKO DATUEN INTERPRETAZIOA

Eibarko Landa Eremuko **65 emakumeren erantzunak** jaso dira. Hauek, aurrez aurre egindako elkarrizketetatik, e-postaz jasotako galdetegietatik eta auzoko koordinatzaileen bitartez betetako galdetegien bitartez jaso dira. Bertan jasotako datuak azalduko dira ondoren.

## 6.1. Eibarko Landa Eremuko Emakumeen lana




Galdera hau erantzun duten emakumeetatik emakumeetatik 21ek, soldatapeko lana dute, eta 13 dira pentsiodunak. 5ek etxeko lanetara dedikatzen direla azaldu dute, 2k ikastera eta beste bi desenpleguan daude.

## 6.2. Eibarko Landa Eremuko Emakumeen Formazio maila



Lehen Hezkuntza osatzeke edo graduatua baino gutxiago duten emakumeak dira gehiengoak. Ikasketa maila adinaren arabera banatutako Udal Erroldaren datuen arabera, aipatutako taldea 65 urte baino gehiago dituzten emakumeek osatzen dute (txostenean ez direnak txertatu). Azken urteetan Eibarko Landa Eremuko Emakumeen kasuan ere, ikasketa maila handituz joan da progresiboki. Hala, unibertsitate ikasketak, graduondoko ikasketak eta formakuntza profesionaleko ikasketak dituzte 18 eta 35 urte bitarteko emakume gehienek.

### 6.3. Gida baimena eta kotxea




Landa eremuan bizi diren emakume gehiengoak gida baimena eta kotxea dauka. Hala ere, kontutan izan behar da gida baimena ez duten emakumeak emakume nagusienak direla. Ondorioz, emakume nagusienak gida baimena duten familiako pertsonen menpekoak dira baserrietatik irteteko.

### 6.4. Baserrien titulartasuna eta jarduera



Guztira 26 baserriren izenak jaso dira. Bestalde, titulartasunaren inguruko galdera erantzun dutenen artean baserri gehienak emakumezkoen izenean daudela adierazi dute.

Bi pertsonek adierazi dute baserriko ustiapenean jarduten dutela lanaldi osoz. Gainerakoek, lanaldi erdian edo gutxiago, eta gehienek etxeko beharrak asetzeko jarduera dela azaldu dute.

### 6.5. Elkarteetan parte hartzea




Elkarrizketetan eta galdetegietan jasotakoaren arabera Eibarko auzoetan bizi diren emakume gehienek ez dute elkarteetan parte hartzen. Elkarteren baten parte hartzen duten emakumeen artean, elkarte **sozialak eta kulturalak** dira parte hartze handiena daukatenak. Aipatzekoa da ere elkarteetan parte hartzen duten emakume gehienek elkarte baten baino gehiagotan egiten dutela.

Elkarrizketatutako emakumeetatik bik, emakumeen baserritarren elkarte batean parte hartzen dute (Hitzez elkartea). Batek nekazarien mugimendu feministarekin bat egiten du eta beste batek futbol federazioan. Baina elkarterik indartsuena Eibarko baserritarren Andirau elkartea da, bertan emakume askok parte hartzen dute.

### 6.6. Adin txikiko zein pertsona nagusien zaintza




Aurrez aurreko elkarrizketetan zein galdetegietan adin txikiko zein nagusiei dagozkien zaintzen inguruan galdetu zaie eta 13 emakumek pertsona nagusiak zaintzen dituztela eta 12 emakumek adin txikikoez arduratzen direla aitortu dute. Galdera erantzun duten emakumeen erdiak baino gehiagok norbaiten zaintzaz arduratzen direla aitortu dute.

### 6.7. Zerbitzuen inguruko asebetetze maila






Grafiko hauetan Landa Eremuko Emakumeek herriko zerbitzuen inguruko asebetetze maila neurtu nahi izan da. Lehen grafikoan agerikoa den bezala gai honen inguruan erantzun dutenen artean ***errepideekiko zein internetekiko*** dituzten zerbitzuak dira gutxien asebetetzen dituztenak. Atzetik, ***garraio eta hondakinen*** kudeaketa zerbitzuak etorriko lirateke asebetetze maila oso txikiarekin.

Bigarren grafikoari dagokionez, ***kontziliazioa errazten duten zerbitzuak*** dira gutxien asetzen dituztenak: adin txikikoentzako zerbitzuak eta mendekotasuna duten pertsonei zuzendutako zerbitzuak. ***Kirola eta aisialdirako*** zerbitzuekin, aldiz, konformeago daude, bai eta osasun zerbitzuekin eta formazio zerbitzuekin ere.

## 6.8. Emakume eta gizonen arteko desberdintasunen inguruan:

23 pertsonek identifikatu dituzte diskriminazio egoerak beraien inguruan. Honakoak dira identifikatutako desberdintasun nagusiak:

| Lanen banaketak eta denbora |
| --- |
| • Lan banaketaren gainean desorekak daude. |
| • Emakumeek etxe barruan lan egiteaz gain gizonei ere lagundu beharra. |
| • Egituraketa tradizionala ematen da. |
| • Emakumeok ardura gehienak gure gain hartzen ditugu. |
| • Zaintza lanak emakumeok gure gain hartzeak denbora librean eragiten digu. |

| Beste diskriminazio batzuk |
| --- |
| • Baserri inguruan desberdintasuna agerikoa da "politikoki zuzena" denak ez duelako baserrian balio. |
| • Emakume batzuk ez dira ia kalera irteten. |

| Diskriminazio eza |
| --- |
| • Baserrietako eraketa eta funtzionamenduak izaera "matriarkala" dauka; dirua, ustiapena eta etxeko martxaren kudeaketaren arduradun bezala identifikatuz etxeko emakumeak. |

## 6.9. Landa eremuko eta kaleko bizi baldintzen desberdintasunen inguruan:

| Denbora |
| --- |
| • Soldatapeko lanak, baserriko lanak eta zaintza lanak denboraren zati gehiena kentzen digu. |
| • Norbere buruari eskaintzeko denbora gutxi daukagu. |
| • Egunero kotxez ibili beharrak denbora asko eramaten digu. |

**Galdetegian isolamendu, bakardade eta beldur pertzepzioaren inguruan egindako galdera espezifikoaren emaitza kuantitatibo eta kualitatiboa:*

| Isolamendu, bakardade, beldur pertzepzioak |
| --- |
| • **Erantzun dutenen artean erdiak beldur sentsazioa dute.** |
| • Lapurreten mehatxuak kezkatzen ditu. |
| • Jende ezezaguna inguruan ibiltzea identifikatzen dute beldur horren iturri gisa. |
| • Bakarrik egotearen beldurra. |
| • Nagusiak bakarrik uztearen beldur eta segurtasun ezaren sentsazioa. |
| • Kaletik baserrira bizitzera pasatzean sentitutako isolamendu sentsazioa naiz eta gerora sentsazioa hori baretu. |

| Zerbitzuak |
|---|
| • Errepideen konponketak gehiagotan egiteko beharra dago. |
| • Bide bazterrak garbiago mantentzeko beharra. |
| • Elurra dagoenean errepideak azkarrago garbitzeko beharra. |
| • Garraio publikoa egotea garrantzitsua da. |
| • Zabor bilketarako ontziak ez daude, ezta birziklatzeko ere. Kalera jaitsi beharra zaborrarekin kotxean. |
| • Ume eta nagusientzako arreta zerbitzuak ez dira nahikoak. |
| • Osasun zerbitzuk ez dituzte beharrak asetzen. Adibidez anbulantziak denbora handia ematen du baserrietara joateko. Ez dituzte baserriak aurkitzen. |
| • Menpekotasuna duten pertsonek ez dute laguntza nahikoa. |
| • Internetaren kalitate ezak gazteen eta hauek zaintzen dituzten pertsonen bizi kalitatean eragiten du. Kotxea erabili beharra liburutegira joateko, eskolako lanak egiteko zailtasunak… |
| • Mugikorrentzako kobertura txarra. |

**Galdetegian landa eremuan bizitzeagatik sentitutako diskriminazioaren inguruan egindako galdera espezifikoaren emaitza kuantitatiboa.*

| Diskriminazioa |
|---|
| • **Galdetutako emakumeetatik 12k diskriminazio egoerak** jasan izana aitortzen du baserritarra izateagatik. |

**Galdetegian landa eremuko bizitzarekiko asetasun pertzepzioaren inguruan egindako galdera espezifikoaren emaitza kuantitatibo eta kualitatiboa:*

| Landa eremuko bizitzarekiko asetasuna |
|---|
| • **37 pertsonek baserriko bizitza nahiago dutela** esan dute, hiriko bizitzarekin alderatuta. |
| • Pertsona batek esan du nahiago duela kalean bizi. |
| • 2 pertsonek esan dute baserriko bizitzarekin nekatzen ari direla. |

| Beste batzuk |
|---|
| • Independentzia gehiagoren beharra. |
| • Askatasun gehiagoren beharra. |

## 6.10. Galdetegian eta elkarrizketetan jasotako proposamenak:

| GALDETEGIAN ETA ELKARRIZKETETAN JASOTAKO PROPOSAMENAK |
| --- |
| • Garraio zerbitzu publiko edo hitzartua. |
| • Errepidea asfaltatu eta bazterrak sarriago garbitzea. |
| • Energia berriztagarrien inguruko informazioa jasotzea. |
| • Baserrietako izenak berriztea. |
| • Birziklatzeko ontziak jartzea. |
| • Auzoetan argi gehiago jartzea. |
| • Internet eta mugikorrarentzat kalitatezko kobertura. |
| • Posta zerbitzu hobea. |
| • Mendekotasuna duten pertsonentzat laguntzak. |
| • Pertsona nagusientzat arreta psikologikoa. |
| • Kontziliaziorako baliabide gehiago. |
| • Osasuneko langileak baserrietara gerturatzea. Erizaina esaterako. |
| • Segurtasuna bermatzeko Ertzainaren presentzia handiagoa. |
| • Landa eremuan bizitzeko erraztasunak izatea, ekoizpen txiki eta jasangarriak izateko erraztasuna legedi aldetik. |
| • Baserriko lanen ezagutza duten langileen laguntzak baserriko jardueraren ardura duen pertsona gaixotzen denerako. Europako iparraldean (Norvegia, Austria…) dauden asistenteen figuraren antzekoa. |
| • Bertako produktuei dagokien balioa ematea. |
| • Baldintza hobeak dituen azoka plaza. |
| • Bertako produktuei kanpokoen aldean preferentzia izatea. |
| • Emakume baserritarren jakituriaren transmisiorako jarduerak. |
| • Tailerrak antolatzea eurak izanik tailer hauetan eskainiko denaren protagonistak. Tipo ezberdinetako jakintzak konpartitu. |
| • Ekintzak auzoetan bertan egitea. |
| • Taldean biltzeko ohitura hartzea. |
| • Emakumeentzako aisialdi taldeak. |
| • Norbere buruari eskaintzeko denbora gehiago. |
| • Antzinako bideak berreskuratzea. |

- Baserriko emakumeak gizartean parte hartzea sustatzea; elkarte ezberdinetan parte hartzea sustatu. Emakume taldeetan parte hartzea euren espazioa izanteko.
- Diagnostiko honen emaitzak jasotzea. Instituzioetatik diagnotiko eta planei dagokien balioa ematea.
- Landa eremuan bizi diren biztanleen hitza entzunaraztea. Adibidez Andirau elkartearen bitartez.
- Udaleko aurrekontuetan baserrietako beharrak asetzeko partida handiagoa.
- Udalak baserrietan dauden beharrei modu eraginkorragoan erantzutea.

# 7. BILERA ETA TALDE DINAMIKETAN JASOTAKO INFORMAZIOAREN INTERPRETAZIOA

Emakumeekin egindako bilera formal zein informaletatik eta talde dinamiketatik jasotako informazioaren interpretazioa egingo da ondoren. Metodologiaren 2. Fasean, datu bilketarena, deskribatu den bezala auzo bakoitzeko emakumeekin dinamika ezberdinak eman dira. Dinamika, harreman eta bilera hauetan eman diren hausnarketak bateratu dira.

**7.1. Emakume eta gizonen arteko desberdintasunen inguruan:**

Emakumeek eurek emakume eta gizonen arteko desberdintasunen inguruan duten pertzepzioa zaintzaren inguruko rol banaketei lotuta dira gehienak. Neurri txikiagoan egoera emozionala eta denboraren banaketaren inguruan ematen den desberdintasunaren pertzepzioa adierazi dute. Emakume batzuk ere emakumeek gizonekiko duten diskriminazio pertzepzio eza adierazi dute.

| Lanen banaketa eta denbora |
|---|
| Haurren zaintza lanak gehien bat gure gain hartzeagatik aisialdirako denbora gutxiago daukagu. |
| Haurrak zein gazteak herrira garraiatu beharrak denbora handia kentzen digu. |
| Familian gaixorik dauden pertsonen zaintzan gizonak baino gehiago inplikatzen gara. |
| Gizonak guk baino denbora libre gehiago daukate. |
| Gizonak emakumeak baino lasaiago bizi dira. |
| Emakumeok etxeko lanei dagokionez ardura gehiago hartzen ditugu. |
| Egiten ditugun lan guztiek nekea sortarazten digu. |

| Beste diskriminazio batzuk |
|---|
| Sexu objektu bezala ikusiak gara emakumeak gizartean. |

| Diskriminazio eza |
| --- |
| Emakumeok ez dugu diskriminaziorik sentitzen emakume izateagatik. |
| Baserriko lanei dagokien rol banaketak antolaketa modu bat da. |
| Gaur egun berdintasuna dago. |

### 7.2. Landa eremuko eta kaleko bizi baldintzen desberdintasunen inguruan:

| Denbora |
| --- |
| Baserriaren inguruko lanek aisialdirako denbora kentzen digu. |
| Baserriaren mantenuak kaleko pisu batek baino denbora gehiago behar du. |
| Haur eta gazteak baserritik kalera eramateko kotxez erabiltzen dugun denbora ez genuke beharko kalean biziko bagina. |
| Kotxea hirian aparkatzeak denbora asko kentzen digu. |
| Baserritarrek kaletarrak baino denbora gutxiago daukagu aisialdian erabiltzeko. |

| Isolamendu, bakardade, beldur pertzepzioak |
| --- |
| Baserrian biziz kalekoek baino bizitza sozial gutxiago daukagu. |
| Lagunekin elkartzeko eta harremanak zaintzeko denbora gutxiago daukagu. |
| Herrian antolatzen diren ekintza gutxiagotan parte hartzeko aukera daukate. |
| Bakardade gehiago sentitzen da baserrian. |
| Nagusienen isolamendu arriskuak kezkatzen gaitu. |
| Arraten eta Aginan daude bakarrik gure artean elkartzeko espazioak. Beste auzoetan ez dago. |

| Zerbitzuen kalitatearen inguruko pertzepzioa |
| --- |
| Baserrian bizitzeagatik zerbitzuak erabiltzeko gastu handiagoak jasan behar ditugu. |
| Baserrian biziz zerbitzuak ez daude eskuragarri. |
| Baserrian interneta edukitzeko gehiago ordaindu behar dugu, gainera ez du ondo funtzionatzen eta ez daukate ADSLrik. |
| Kobertura txarra daukagu landa eremuan. |
| Kotxeak dakarren gastua eta denboraren erabilera ekiditeko garraio publikoaren beharra daukagu. |

| Diskriminazioa |
|---|
| Bigarren mailako herritarrak bezala ikusten digute. |
| Baserriko nortasuna folklore hutsa denaren pertzepzioa. |

| Bestelako pertzepzioak |
|---|
| Kotxea asko erabiltzeak estresa sortarazten du. |
| Baserrian bizitzea sostengaitza denaren pertzepzioa daukagu. |
| Hirigintzako plan estrategikoan bide gorria egiteko planteamenduarekin ez gaude ados. Kaletarrei galdetu zaie nondik pasatu nahi den eta proposatzen den bide gorria gure terrenoetatik pasatzen da. |
| Lehengo sektorearen galera. |
| Baserritarrak modan gaude kaletar gazteen artean. |

### 7.3. Azokako emakumeekin azokan bertan jasotakoa:

| Azokako emakumeen ahotsa |
|---|
| Azokan egoteko baldintza hobeagoak nahi ditugu baina ez dute baldintza gogorragoak izango dituen azoka bat (kuota garestiagoekin, ekologikoak preferentzia izango duena, agrarian altan emanda egon beharra…). |
| Oraingo azoka barruan dauden postuak betetzea bezero gehiago erakartzeko. |
| Azokan gustura egoten gara, dirua lortzeaz gain aisialdi eta sozializatzeko gune bezala. |
| Kotizatu ez duten emakumeentzat diru iturria da. |
| Baserriko jarduera ekonomikoki sostengarria izango balitz errelebo generazionala egoteko aukera egongo zen baina ez da posible gaur egungo baldintzetan. |
| Baserriko lana ez da balioan jartzen. |

### 7.4. Bileretan eta talde dinamiketan jasotako proposamenak:

Bileretan zein talde dinamiketan jasotako proposamenak galdetegian eta elkarrizketetan jasotakoen antzekoak dira. Horregatik, bertan azalduko diren proposamenak aurreko atalean jaso ez direnak izango dira.

| GALDETEGIAN ETA ELKARRIZKETETAN JASOTAKO PROPOSAMENAK |
|---|
| • Landa Eremuan bizitzeagatik eskoletako garraio eta jantokietan daukaten diru laguntzen inguruko informazioa jasotzea. |
| • Udaleko hirigintzako planak beraien lurrekin zerikusia badute lehenik beraiekin hitz egitea nahiko lukete. |
| • Etxebarri eta Bolibar herrietan duten taxi hitzartua Eibarren jartzea. |
| • Beraien sareak sendotzea. |
| • Eibarko baserri nortasuna berreskuratzea. |
| • Kaletarrei auzoak ezagutzera ematea. |
| • Azoka berriaren prozesuan azokako emakumeen parte hartzea ziurtatzea. |
| • Hiritarrak landa eremura joaten direnean zaborra ez botatzeko kontzientzia hartzea. Adibidez zaborrari argazkiak atera eta sareetan zabalduz. |
| • Antolatzen diren ekintzen inguruko informazioa jasotzea eta hauetan parte hartzeko garraioa erraztea. |
| • Kitto aldizkaria jasotzea. |
| • Konfiantzazko guneak konpartitu emakumeen artean. |
| • Azurtza auzoko espazioa erabiltzea elkartzeko. |
| • Etxaldeko emakumeen mugimendua ezagutzea. |
| • Emakume baserritarren beharrak ezagutzeko beste bide batzuk proposatu. Adibidez, beraiek tailerrak eman, auzolanak antolatu kaletarrak ere joan daitezen… Helburu ezberdinak lortu daitezke: balioan jarri emakume baserritarren lana, elkarren arteko ezagutza, sareak sortzea… |
| • Hitzez elkartea ezagutaraztea eta antolatzen dituzten ekintzak zabaltzea. |
| • Emakume nagusienei zuzendutako ekintzak Arraten izatea parte hartzea bermatzeko. |

# 8. ONDORIOAK

Sarreran aipatu den bezala, gaur egungo Landa Eremuko ***Emakumeen errealitateak anitzak*** dira. Hala ere, guztiek daukate konpartitzen dituzten hainbat behar eta erronka.

Lehen sektoreari lotutako baserriko bizitza tradizionala geroz eta indar gutxiago dauka Eibarreko landa eremuan naiz eta baserri edo etxe gehienek norbere kontsumorako ortu edo/eta animali batzuk dituztela. Baina garrantzitsua da aipatzea oraindik emakume askoren errealitateak baserriko bizitza tradizionalari lotuak jarraitzen dutela.

Eibarko Landa Eremuko Emakumeek, ***emakume eta gizonen arteko berdintasun pertzepzioari*** dagokionez, generoan oinarritutako rol banaketak dira gehien antzematen dituzten desberdintasunak. Batez ere, zaintza lanak eta baserriko lanen banaketen ingurukoak. Baserriko titulartasunari dagokionez ez da diskriminazio nabaririk antzematen, hala ere, kontutan izan behar da galdera honek ez duela harrera onik izan eta askok ez erantzutea erabaki dutela.

